

atariko haizea

NoAUA! Astekaria. Gehigarri berezia

SAGARDO EGUNAREN XXV URTEAK ERAKUSKETA BATEAN BILDURIK

"Sagardo Egunaren XXV urteak" du izena aurtengo erakusketak. Sagardo Egunaren Lagunak taldeak antolatu du eta Sutegiko erakusketa gelan aurkituko duzue egunotan. Sagardo Egunean bertan ere zabalik izango da.

Sagardo Egunak XXV urte bete ditu eta, honekin batera, bere inguruan urte hauetan egin den guztiak. Horregatik, maiatzaren 1ean ireki zen erakusketak ateak zabalik izango ditu Sagardo Eguna bitartean. Bertan, urte hauetan guztietan ospakizun honek utzitako ondarea ikusi ahal izango da: argazkiak, prentsa-oharrak, kartelak, edalontziak...

Aurtengo erakusketan aurreko urteetako edizioak bildu dira, eta horretarako urte hauetan guztietan egun berezi honetarako sortu diren kartel, edalontzi eta abarrak baliagarri izan dira.



HIRUGARREN SAGARDO
EGUNEKO KARTELA



EDALONTZIAK SALGAI DAUDE ERAKUSKETAN

Sutegi Kultur Etxeko erakusketak aretoa, egun batzuetarako, denboran atzera egiteko makina bihurtu da. Lehenengo urteetako kartelak ikus daitezke paretan, urte ezberdinetako edalontzi grabatuak erosteko aukera dago eta, ikusgarriena dena, XV. urteurrena zela eta egindako laburmetraia etengabe dago ikusgai.

Laburmetraia horretan, duela hamar urteko irudiak bizi-bizian ikus daitezke. Botatzaileak, festazaleak, herritarrek eta kanpotarrak, giroa ikustera etorri eta hemen gelditu zirenak...

Maiatzaren 1ean zabaldu zuten, eta hilaren 21era arte, Sagardo Eguna barne, egongo da zabalik. Honako ordutegia dauka: astelehenetik ostiralera,

18:30etik 20:30era.

Larunbatetan, eguerditan 12:00etatik 14:00etara eta arratsez 18:30etik 20:30era.

Igandetan, aldiz, 12:00etatik 14:00etara.



SAGARDO EGUNAREN 25 URTEAK
"JASO" DIRA SUTEGIN

sagardo eguna 06 maiatzak 21